

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bilerari buruzko datuak:

Eguna: 2014-01-09 Tokia: Santa Klara Jauregia Ordua: 17.00-19.15

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo.

Enclave de ciudadanas por Getxo: Charo De la Peña.

Eskuz-Esku: Isabel Perez.

Gizatiar: Begoña Fernandez, Marisa Pedrero.

Mujeres con Voz: Luciana Gomez Davies.

Getxo Enpresa: Haifa Alrifaie Selas.

ELA: Elvira Lemona.

Udaleko alderdi sozialista: Teresa Garcia Oviedo, Ines Becares.

Alderdi popularra: Ana Basilio.

Bildu: Maitane Nerekan.

EAJ-PNV: Elena Coria.

Lehendakaria: Keltse Eiguren.

Idazkaria: Idoia Eizmendi.

Bertaratu gabeak:

Roda (barkamena eskatu du).

Gai-zerrenda

- Aurreko akta onartzea.
- A25 baloratzea.
- Martxoaren 8ko kanpaina.
- III. Berdintasun Planeko 2013ko ekintzen segimendua.
- Galde-eskeak.

Gai-zerrendako gaiekin hasi baino lehen, Berdintasuneko zinegotziak nork bere burua aurkeztea proposatu du, Kontseiluan lehenbizikoz parte hartuko duten bi lagun baitaude, bata Gizatiarreko ordezkaria eta bestea Getxo Enpresakoa.

Aurreko akta onartzea.

Aurreko bilerako akta onartu egin dute.

A25 baloratzea.

Kontzentrazioak

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean antolatutako jarduerak baloratu dituzte.

Gizatiarreko ordezkari batek azaldu du Areetako puntu lilan bildu eta manifestua irakurri zutela, aurreikusi bezala. Bertaratuek esan zuten aurreko urteetan baino jende gehiago bildu zela, baina berak uste du ezetz. Elkarteko ordezkariaren iritziz, urtero gauza bera gertatzen da, eta ez dago batere pozik.

PPko ordezkariak uste du aurrekoetan baino jende gehiago bildu zela.

Gizatiarren aburuz, eguraldiak eragin handia dauka; jende asko gonbidatzen da baina erantzuna ez da ona. Horrez gain, deialdia 25erako egin beharrean 28rako egitea ez da erabaki ona izan.

PSEko ordezkarietako batek uste du baietz, jende gehiago bildu dela, baina aukera gehiago badauden eta zer edo zer aldatu daitekeen aztertu beharra dagoela: eguna, ordua... Norma Vazquezen hitzaldiari dagokionez, interesgarria iruditu zitzaion eta nahiko jende bildu zuela uste du. Dena den, irizten dio era horretako jarduerak ez liratekeela egun berezietan bakarrik egin behar, azaroaren 25ean eta martxoaren 8an, adibidez.

Gizatiarrek badaki puntu lila ez dagoela hirigunetik gertu, baina, hala ere, iruditzen zaie han biltzea garrantzitsua dela, balio sinbolikoa duelako.

PSEk planteatu du, baita ere, deialdia nork, norentzat eta zertarako egiten den argi eta garbi azaldu behar dela, nahasterik sor ez dadin.

Bilgune Feministak azaldu du deialdiaren helburua ez zela polemika piztea, eta ez zeukatela inori gorabeherarik sortzeko asmorik. Kontzentrazioa nork antolatzen duen argitu beharrezkin ados daude. Deialdiari dagokionez, elkaratearentzat Algorta eta Areta bi herri desberdin dira, uste dute zentralizazioa ez dela egokia eta leku gehiagotan eta presenteago egotea ona dela. Elkaratearen kontzentrazioa Algortako puntu lilan egin zen, baina iruditzen zaie oso txikia dela, ez dela aurkitzen erraza eta, han bilduz gero, kalean dabilen jendeari ez zaiola pasatzen uzten. Algortan puntu lila ez da leku egokian jarri. Kontseiluko lehendakariak jakinarazi dio Algortan puntu lila jartzeko proposamena Berdintasun Kontseiluak berak egin zuela.

Deialdiaren lehen asmoa zen ahalduntzearen eta autodefentsa feministaren ikuspegia sustatzea (alde horretatik, Norma Vazquezen hitzaldia egokia izan zen), baina, deialdiaren inguruan sortutako polemikagatik, ez zuten manifestua irakurri. Hurrengorako prest daude beste emakume batzuekin jarduerak antolatzeko eta lan egiteko, siglarik gabe. Horren harian, uste dute gertatutakoa, etorkizuna hobetzeko balio badu, positiboa dela.

Enclave elkaratearen ordezkariaren iritziz, Bilguneren deialdia egokia izan zen, eta garrantzitsua zen kontzentrazioa 25ean egitea. Udalaren erantzuna, ordea, ez zitzaion egokia iruditu, beste kontzentrazio baten deialdiaren aurreko oharazpenaren itxura zeukan.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio ez zeukala mezuen gaiaz berriz aritzeko asmorik, konponduta zegoela zeritzolako. Azaldu du Bilgunek kontzentrazio batean parte hartzeko deia egin zuela Kontseiluko kideei, Gizatiarren kontzentrazioaz eztabaida egin eta Kontseiluak babesten zuela adierazi ondoren (alde horretatik, ados dago deialdia nork egiten duen zehazteko premiarekin). Gizatiarrek ez dauka izaera juridikorik eta, beraz, elkarte gisa ezin du deialdirik egin, baina eztabaida egin zen eta elkarte ahalik eta batasun gehien lortzen tematu zen. Horregatik harritu ditu deialdi berriak, gaiaz eztabaida egin zelako eta zer jarrera hartu adostu

zelako, nahiz eta elkarteek nahi adina deialdi egin ditzaketen; eta horixe da mezuan azaldu zuena. Horrez gain, azaldu du Kontseiluak eta Berdintasun Zerbitzuak ez dutela ezer proposatu ez martxoaren 8rako ez azaroaren 25erako, nahi dutenak Bilboko manifestaziora joan daitezten. Mezuan egoera hori argitzen saiatu zen, eta uste du Bilguneren deialdia berandu heldu dela, gaia eztabaidatu zelako eta, gainera, indarra gutxitzen duelako. Datorren urtean deialdia nork egiten duen zehaztu beharko litzateke. Berdintasuneko arduradun gisa, batasuna lortzea da gakoa eta, horregatik, kontzentrazio bakarra egitearen aldekoa da. Hainbat auzoz osaturiko udalerrria da, nahiz eta sektore batzuk ez diren getxotar sentitzen.

Bilgunek galdetu du kontzentrazioa nork deitu zuen. Ez dute ulertzen Udalak Gizatiarren kontzentrazioa bere egin beharra.

Gizatiarrek gogorarazi du kontzentrazio hori aitzindari izan dela eta, horregatik, uste dute gainerakoek bat egin behar dutela; dena den, ez dute protagonista izateko grinarik.

PSEren iritziz, deialdia herritarrei egin behar zaie, emakume eta gizonei, eta ideologia desberdineko siglek bat egin beharko lukete.

EAJ-PNVko ordezkariak esan du bat datorrela ordura arte egin dituzten hausnarketa batzuekin. Gogorarazi du Getxon lehenbiziko deialdia Gizatiarrek egin zuela, 15 urte daramatzala kontzentrazioa antolatzen, eta hori kontuan hartu beharko litzatekeela. Haren iritziz, siglarik gabeko eta instituzionalizatu gabeko kontzentrazioa da, eta Udalak eta alderdi politikoez bat egiten dute. Beste gai bat da eguna eta lekua aldatzea. Areetan egiten jarraitu edo Algortan egin beharko litzateke? Proposatu du Kontseiluan eztabaidatzea eta, gero, erabaki behar den lekuan erabakitzea.

Eskuz-esku elkartearen iritziz, arazoa lekua da, ez zaie egokia iruditzen.

Berdintasuneko teknikariak uste du deialdia Gizatiarrena dela, azken urteetan bezala. Kontseiluaren azken bileran ez zen egon, baina aktan ikusi du ez dela azaltzen talde gehiagok deialdia egin dutenik, ezta berariaz babesten dutenik ere. Urtero azpimarratzen du emakumeen gainerako erakundeak deialdi bateratua egitera animatu behar direla (urte batzuetan deialdia elkarrekin egiten zuten), Gizatiar elkarteko emakumeak kontzentrazioan bakarrik utzi beharrean. Alde horretatik, azken urteetan kontzentrazioan zergatik ez duen parte hartu azaldu nahi du. Berdintasuneko Foroko elkarteek deialdi bateratua egiten zutenean, hedakuntzaz eta megafoniaz arduratzen zen, eta parte hartzen zuen. Orain, ordea, ez, bi deialdi egiten direlako, bat Bilgunerena eta bestea Gizatiarrena, eta uste du ez duela zertan baten edo bestearen alde egin behar.

Eskuz-eskuk azaldu du deialdia egiten zutenean gaizki sentitzen zirela, elkarteko emakumeek ez zutelako parte hartzen. Hori zela-eta, erabaki zuten ikastaroetako ikasle guztiei kontzentrazioaren berri ematea eta parte hartzera animatzea, baina elkarte gisa deialdirik ez egitea. Eskuz-esku elkarteak eta, ordezkariaren iritziz, gainerako elkarteek kontzentrazioaren deialdian parte hartzeari utzi zioten erosoagoa zelako deialdia beste elkarte batek egitea.

Berdintasuneko zinegotziak azpimarratu du, batetik, elkarteek nahi dutena planteatzea dezaketela; eta bestetik, Berdintasun Zerbitzuak egoki irizten diona babesteko ahalmena duela. Zinegotziaren iritziz, ekitaldiaren deialdia, tradizioz, Gizatiarrek egin du, eta Berdintasun Zerbitzuak, bere egin ondoren, karteekin eta megafonian lagundu du. Datozen urteetan, Berdintasun Zerbitzuak kontzentrazioaren bat babestu edo beste deialdi bat egin nahi duen erabakiko du. Dena den, ahalik eta adostasun handiena lortzearen aldekoa da.

Manifestua

Bilduk gogorarazi du alderdiak beste udalerrri batzuetan bere manifestua proposatu duen arren, Getxon Eudelen manifestuari eman diola babesa, Kontseiluak onartu zuelako. Proposatu du onarpenari garrantzi handiagoa ematea, Bozeramaileen Batzordean onartu, gero udalbatzan idazkariak irakurri (gainera, gizona da) eta prentsa-oharra egin beharrean. Uste du ez zaiola ematen merezi duen garrantzia.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio udalbatzan lantzen diren gainerako gaiekin bezala egiten dela, eta prozedura hori dela. Bozeramaileen Batzordeak onartu eta udalbatzara, udal-organo gorenera, eramandako adierazpen bat da.

Bilduk proposatu du prozedurak betetzea, baina beste formatu bat ematen saiatzea; esate batera, adierazpena idazkariak ez irakurtzea, beste gaiekin egiten den bezala, bileran daudenek ez diotelako ez arretarik jartzen ez garrantzirik ematen, eta inor ez delako konturatzen.

Beste aukera bat litzateke Kontseiluak berak manifestu bat proposatzea.

Berdintasuneko zinegotziak esan du Eudelen manifestua Burdinsarean lantzen dela eta hori proposatu dela beti, udalerrri guztietako diskurtsoa berbera izan dadin, era horretan mezua barrurago sartzen delako. Zinegotziaren iritziz, kontua da Eudelen manifestua aukeratu nahi den ala ez.

Bilduk esan du egoki iruditzen zaiola Eudelen testua onartzea, baina garrantzitsua dela nola irakurtzen den eta ematen den ezagutzera.

Martxoaren 8ko kanpaina

Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du Kontseiluak martxoaren 8an egiteko jardueren proposamenak jasotzen dituela, urtero, eta, gero, Berdintasun Zerbitzuak proposamenak aztertu eta egokienak aukeratzen dituela. Urtero, gainera, gai bat aukeratzen da, pixkanaka diskriminazio-arlo guztiak agerian jartzeko asmoarekin.

Eskuz-eskuk proposatu du aurten abortua hartzea gaitzat, emakumeen eskubideen inguruan gori-gori dagoen gaia delako.

Mujeres con Voz elkarteak proposatu du gaia sexu- eta ugaltze-eskubideak izatea.

Bilgune ados dago, baina hezkuntza-erreformari lotzea proposatu du, afektibitate- eta sexu-hezkuntzarekin eta drogazaletasunaren prebentzioarekin¹ zerikusi zuzena duelako.

Izan ere, uste dute euskal hezkuntza-sisteman berdintasunaren inguruko balioak- eta sustatzeko egin den lana erreformak kolpe batez suntsituko duela.

Proposatu dute, baita ere, esparru hori aprobetxatzea informazio-bulegoa eta sexologia-aholkularitza ezagutzera emateko.

PSEk uste du, halaber, herritartasun-hezkuntza oso garrantzitsua zela arlo horretan eta eskubideak murrizten ari direla.

Gizatiarreko ordezkaria ados dago horrekin eta uste du gazteei eskubideak lortzeko borroka egiten erakutsi behar zaiela.

Berdintasuneko zinegotziak azaldu du Berdintasun Zerbitzuaren proposamena zela, baita ere, sexu- eta ugaltze-eskubideak jorratzea, edo erantzunkidetasunaren kanpainarekin aurrera egitea edo alargunen eta pentsiodunen gaiari buruzko jardueraren bat egitea, nahiz eta gai horiek urteko beste garai batean ere landu daitezkeen. Jardueraren formatuari dagokionez, proposatu du hitzaldi edo mahai-inguru bat egitea eta antzerki edo pelikula bat jartzea. Orobat, proposatu du Emakunde gonbidatzea berdintasun-politikei buruzko hitzaldi bat ematera eta Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun Plan berria aurkeztera.

Mujeres con Voz elkarteko ordezkariak jakinarazi du sexu- eta ugaltze-eskubideei buruzko biltzar bat antolatzen ari direla, hain zuzen ere, Haurralde elkartearekin, eta biltzarra 2015ean egingo dutela, seguru asko.

III. Berdintasun Planeko 2013ko ekintzen segimendua

Berdintasuneko zinegotziak 2013ko ekintzen segimenduari buruzko dokumentua aurkeztu du. Ezin izan dute bezperara arte bidali, Berdintasuneko teknikariak informazioa hainbat ataletan bildu behar zuelako eta, oporraldiaren ondorioz, informazio-bilketa hori atzeratu egin delako.

¹ Drogazaletasuna prebenitzeko programan balio osasungarriak sustatzen dira eta sexualitateari eta drogen erabilerrari buruzko prebentzio-saio bat egiten da.

Azaldu du ekintzen %79 eginda eta %2,53 martxan daudela, eta %17,72 ez direla egin. Alde horretatik, 12 ekintza ez dituzte aintzat hartu, ez dagokielako (arrazoia testuan daude jasota).

HZA2.1 eta HZA2.2: Eskuz-eskuk galdetu du zergatik ez diren gauzatu hezkuntzari buruzko jarduerak, eta Berdintasuneko teknikariak erantzun dio ez zegoela jarduera horietarako aurrekonturik. Teknikariak esan du, baita ere, Berdintasun Zerbitzuaren ardura diren jarduerari dagokienez, aurrekontua egindakoak Berdintasun Zerbitzuaren Lan Planean agertzen direnak direla; gainerakoei ez zaie lehentasunik eman Lan Plana egiterakoan. Egin gabeko jarduerari dagokienez, argitu du arrazoa ez dela izan, denetan, aurrekonturik ez izatea.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio kasu horretan ez zegoela aurrekonturik eta arrazoa beste bat izan dela.

NO1.3: PSEko ordezkariak esan du herritar gisa parte hartzen duela HAPOko lantaldeetan, eta hirigintzan genero-ikuspegia kontuan hartzen ikasteko ordu erdiko ikastaroa besterik ez dela egin. Horregatik, uste du arlo horretako langileak prestatzeko une egokia dela.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio prestakuntzarik ez dela egin hirigintzako langileek lan handia dutelako.

Bilduk proposatu du 2014an, barne-prestakuntza antolatzerakoan, hirigintzako langile teknikoei eta HAPOren arduradunei lehentasuna ematea.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio ekintza hirigintzako langileei dagokiela, ez HAPO idazten ari direnei.

HIGB1.6: Berdintasuneko zinegotziak adierazi du dauden ekipamenduetan ez dela berrikuntzarik egingo edoskitze-gelak jartzeko, ekipamendu berrietan jarriko direla. PSEko ordezkariak gogorarazi du udalbatzan mozio bat onartu dela, parte hartu nahi duten merkataritza-establezimenduekin batera edoskitze-gelen sarea antolatzeko.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio mozioa ez dela betearazlea, eta udalerrian ez dagoela inon oztoporik bularra emateko. Bere iritziz, gaia eztabaidagarria da eta gehiago sakondu behar da; izan ere, bularra nahierara ematea sustatuz gero, gerta daiteke emakumeak etxera bidaltzen amaitzea.

PSEko ordezkariak HIGB1.6 ekintza aldatzea proposatu du, onartutako mozioari egokitzeko.

EAJ-PNVko ordezkariak esan du hori PSEren mozioa Berdintasun Planean sartzea litzatekeela.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio ekintza berri bat sartzeko aurrena udalbatzan aldatu behar dela, dagokion prozedurarekin eta gehiengoak adostuta, ezin dela besterik gabe aldatu.

Berandu samar denez eta, gainera, partaideek ezin izan dutenez dokumentua sakon aztertu, erabaki dute berrikuspenarekin hurrengo bileran jarraitzea.

GALDE-ESKEAK

Bilgunek jakinarazi du abortatzeko eskubidearen aldeko mozio bat aurkeztuko dutela Itzurbaltzetako Emakumeen Asanbladarekin batera. Galdetu du alderdiek zer edo zer aurreikusi duten, eta posible al den taldeekin testuren bat adostea, aurkeztuko duten mozio-proposamena ez baita itxia. Horren harian, jakin nahi dute era horretako aurkezpenak nola kudeatzen diren.

Bilduk erantzun dio mozioak elkarrekin edo bakoitzak bere aldetik aurkez ditzaketela. Proposamena elkarte batek egin dezake, adibidez, baina alderdi politiko batek aurkeztu, testuan adierazita nork proposatu duen.

Berdintasuneko zinegotziak adierazi du mozioa bere gain hartu nahi duen alderdiak urtarilaren 23ko eguerdiko 13.00ak baino lehen aurkeztu behar duela erregistroan.

Bilguneko ordezkariak jakinarazi du abortatzeko eskubidearen aldeko manifestazio-deialdia egingo dutela; manifestazioa urtarrilaren 24an egingo dute, Santa Eugenioan. Deialdia Uribe Kostako Elkarrekin Feministen Koordinakundeak egingo du, eta interesa duten guztiak bat egitera animatu ditu.

Enclave elkarteak ordezkariak esan du galdera bat zekartela, Udalak abortuaren legearen erreformaren inguruan zer edo zer egitea aurreikusi duen jakiteko.

PSEko ordezkariak galdetu du bilerako akta bizkorrago onar daitekeen, web-gunera igotzeko, eta Berdintasuneko ordezkariak erantzun dio Kontseiluko Araudiaren arabera akta hurrengo bileran onartuko dela eta, beraz, prozedura horri eutsiko zaiola.

Bilera amaitzeko, Berdintasun Zerbitzuak esan du aurten diru-laguntzen deialdia ahal bezain laster argitaratuko dela.

HURRENGO BILERA: OTSAILAK 19, ASTEAZKENA, 17.00ETAN SANTA KLARAN.